

CAJA LABORAL GESTIÓN, S.G.I.I.C., S.A.

INPLIKAZIO ETA BOTO-ESKUBIDEEI BURUZKO POLITIKA

2021eko ekaina

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
1.1. Politikaren Xedea	2
1.2. Politika egiteko eta onartzeko ardura duten arloak	3
1.3. Politikaren Hartzaileak	3
1.4. Politika Eguneratzea	3
2. EPE LUZERAKO INPLIKAZIO-JARDUERAK	3
2.1. Inplikazioa inbertsio-politikan	3
2.2. Boto-eskubideak baliatzea	4
2.3. Boto-eskubidea eskuordetzea	5
2.4. Komunikazioak Sozietateekin eta gainerako akziodunekin	5
2.5. Boto-aholkularitzako zerbitzuak (proxy advisor)	5
3. INTERES-GATAZKEN KUDEAKETA	6
4. POLITIKAREN APLIKAZIOA URTERO ARGITARATZEA	6

1. SARRERA

1.1. Politikaren Xedea.

Dokumentu honek (aurrerantzean "Politika") Caja Laboral Gestión, SGIIC, SA-ren (aurrerantzean "Kudeatzailea") epe luzerako inplikazio-politika jasotzen du, "aktiboen kudeatzaile eta inbertitzaile instituzional" funtzioan, kudeatzen dituen IKEen inbertsioaren xede diren kotizatutako sozietateei dagokienez, eta azken horiek akziodun diren sozietateei dagokienez, batez ere honako lege hauek betez: Kapital Sozietateen Legea (KSL), Inbertsio Kolektiboko Erakundeen Legea (IKEL), Europako Parlamentuaren 2017/828 Zuzentaraua (SDR II, ingelesezko sigletan) eta haren Betearazpen Erregelamendua, bai eta gainerako garapen-araudia ere, zehazki, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina aldatzen duen Legea, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua eta beste finantza-arau batzuk aldatzen dituen Legea, akziodunak kotizatutako sozietateetan epe luzera inplikatzeari dagokienez.

Politikaren helburua da Sozietate Kudeatzailearen inplikazio egokia bermatzeko beharrezko neurriak hartzea inbertitzen duen konpainien gobernu korporatiboan, honako hauek ziurtatzeko:

- Azken bezeroen interesak beste edozein kontsiderazioren gainetik egotea.
- Epe luzerako balioa sortzea, hurbilketa eta jasangarritasunarekiko konpromiso hori partekatzen duten konpainietan inbertituz
- Ingurumen-, gizarte- *eta* gobernantza-irizpideak aplikatzea
- Sozietate Kudeatzailearen inbertsioetan.

Zehazki, Politikak hauek deskribatuko ditu:

- akziodun gisa beren inbertsio-politikan inplikatzeko prozedura,
- estrategiari, etekin finantzarioari eta ez-finantzarioari, kapital-egiturari, gobernu korporatiboari edo bere jardueren ingurumen- edo gizarte-inpaktuari dagokienez inbertitzen duen sozietateen jarraipena,
- elkarrizketa aktiboa sozietateekin,
- boto-eskubideak baliatzea, eta
- inplikazio-jardueretatik eratorritako interes-gatazken kudeaketa.

Bestalde, Politika hori aplikatuz, Kudeatzaileak urtero argitaratuko du bere inplikazio-politikaren aplikazioa, baita boto-eskubideei dagokienez izan duen portaeraren deskribapen orokorra, bozketarik garrantzitsuenen azalpena eta, hala badagokio, boto-aholkularien zerbitzuetara jo izanaren azalpena ere. Gainera, Kudeatzaileak urtero argitaratuko du bere botoaren noranzkoa inbertsio kolektiboko erakundeen bidez akzioak dituzten sozietateen batzar nagusietan.

1.2. Politika egiteko eta onartzeko ardura duten arloak.

Politika egiteko eta eguneratzeko ardura Araudia Betearazteko eta Arriskuak Kontrolatzeko Arloari dagokio, eragina izan dezaketen beste arlo batzuen laguntzarekin.

Inplikazio-politika hau onartzeko erantzukizuna Kudeatzailearen Administrazio Kontseiluari dagokio, Araudia Betearazteko eta Arriskuak Kudeatzeko Arloak proposatuta.

1.3. Politikaren Hartzaileak.

Politika eta haren eguneratzeak edo aldaketak onartu ondoren, eraginpeko langileen eta pertsonen eskura jarriko da.

Halaber, Inplikazio Politika, bertsio eguneratuenean, Kudeatzailearen webgunean (www.laboralkutxa.com) egongo da eskuragarri.

1.4. Politika Eguneratzea.

Politika urtean behin berrikusiko du, gutxienez, Araudia Betearazteko Arloak, eta honako hauen ondorioz beharrezkotzat jotzen dituen aldaketa guztiak jasoko ditu:

Eragindako esparru eta departamentuetako arduradunen proposamenak.
Araudietan izaten diren berritasunak.

Barne-auditoretzako gomendioak.

Kanpoko auditoreen eta erakunde ikuskatzaileen gomendioak.

2. EPE LUZERAKO INPLIKAZIO-JARDUERAK

2.1. Inplikazioa inbertsio-politikan

Araudiarekin bat etorritik, Caja Laboral Gestión, SGIIC, SA behartuta dago, Batzar Nagusietan bertaratzeko eta botoa emateko eskubideari arreta berezia jarritik, berak kudeatutako inbertsio-funtsen (IF) zorroak osatzen dituzten baloreei dagozkien eskubideak erabiltzera.

Politika horrek azaltzen du, besteak beste, nola integratzen duen Kudeatzaileak akziodunen inplikazioa bere inbertsio-politikan, eta nola gauzatzen dituen, hala badagokio, boto-eskubideak inbertitzen duen sozietateetako akziodunen batzar nagusietan, bereziki bozketa garrantzitsuenetan eta, hala badagokio, boto-aholkularien zerbitzuetara jotzea.

2.2. Boto-eskubideak baliatzea.

Irizpide orokor gisa, Kudeatzaileak kudeatutako zorroak osatzen dituzten baloreei dagozkien eskubide politikoak baliatuko ditu honako kasu hauetan:

- baloreak Europar Batasuneko merkatuetan kotizatzen direnean.
- jaulkitzailea egoitza soziala Europar Batasuneko estatu kide batean duen sozietate bat bada.

Eraginkortasun- eta proportzionaltasun-irizpideetan oinarrituta, eta 2017/828 Zuzentarauak gomendatutakoaren ildotik, Caja Laboral Gestiónek bere boto-eskubidea gauzatuko du Sozietate horietako Akziodunen Batzar Nagusietara joanda edo eskuordetuta, baldin eta kudeatutako inbertsio-funtsek kapitalean duten partaidetzak honako bi baldintza hauek betetzen baditu:

- Sozietatearen erabakietan eragiteko gaitasuna. Kudeatzaileak kudeatutako inbertsio-funts guztiek Sozietatean duten zenbatekoa partaidetzako sozietatearen kapitalaren % 1 edo handiagoa denean.
- Zorroetako partaidetzaren antzinatasuna. Kudeatzaileak kudeatutako funtsen partaidetzaren antzinatasuna 12 hilabete edo gehiagokoa denean, botoa ematen den unean.

Bestela, Caja Laboral Gestiónek eskubidea du botoa ez emateko akzio-partaidetza ez delako esanguratsua sozietatearen kapital sozialarekiko edo postuaren antzinatasunarekiko proportzioan.

Enpresa batean inplikatzeari dakarten bozkatu beharreko gaiak, izaera adierazgarri eta ez mugatzaileekin, honako hauek izan daitezke:

- Administrazio-organoak: Kontseiluaren gaitasuna eta jarduna, independentzia, genero-aniztasuna edo adina, besteak beste.
- Administrazio Kontseiluko eta zuzendaritza-taldeko kideen ordainsari-politika.
- Enpresa-estrategia, kapitalaren egitura aldatzea, ESG helburuak zehaztea, ekoizpen jasangarria, akziodun minoritarioen interesak babestea.
- Sozialak eta Ingurumenekoak: identifikatutako ingurumen- eta gizarte-arriskuen estaldura, ESG irizpideen hedapena, nazioarteko jokabide-arau/-kodeei atxikitzea.

2.3. Boto-eskubidea eskuordetzea

Caja Laboral Gestiónek, oro har, Sozietateen Batzar Nagusiei eskuordetu ahal izango die boto-eskubidea Administrazio Kontseiluko Presidenteari edo organo horretako beste kide bati, botoaren noranzkoa adierazi gabe.

Hala ere, Caja Laboral Gestiónek egoki irizten dionean partaideen eskubideak hobeto defendatzeko, Batzar Nagusietara joango da, eta botoa independentziaz eta objektibotasunez emango du, inbertitzaileen onurarako soilik, eta gestoreak izango dira azken erantzuleak horren noranzkoa erabakitzeke orduan.

Sozietateek akziodunentzat eta inbertitzaileentzat urrutiko komunikabideak gaitzen dituzten kasuetan, ordezkaritza eta botoa delegatu edo elektronikoki egikaritu ahal izango dira.

2.4. Komunikazioak Sozietateekin eta gainerako akziodunekin

Partaideen intereserako komenigarritzat jotzen duenean, Caja Laboral Gestiónek Batzarren gai-zerrendan jasotako gaiei buruz egokitzen jotzen dituen informazio edo argibideak eskatuko dizkie Sozietateen Administrazioaileei, indarrean dagoen Sozietate Anonimoen Legeak horretarako aurreikusten dituen epeen barruan.

Caja Laboral Gestión Batzar Nagusietara joaten den kasuetan, halaber, informazio-eskubidea baliatu ahal izango du, komeni bada, horiek egiten diren bitartean, lege ezarritako moduan.

Bestalde, zenbait kasutan, gestoreek beste aktibo-/akziodun-gestore batzuekin lankidetzan jardun dezakete, inbertitzaileentzat onena dela uste badute. Lankidetzan hori akziodunen arteko lankidetzaren ekimenetan parte hartzea edo beste aktibo-gestore batzuekin bat egitea izan daiteke, enpresa-batzordeetan botoa emateari dagokionez.

2.5. Boto-aholkularitzako zerbitzuak (proxy advisor)

Caja Laboral Gestiónen bozketa-politikak kontuan hartuko ditu ESG irizpideetan (ingurumenekoak, gizartekoak eta gobernantzekoak) eta finantza-alderdietan oinarritutako inbertsio sozialerako printzipioak.

Horrela, Kudeatzaileak boto-eskubidea erabiliko du inbertitzen duen Sozietatearen epe ertain eta luzerako errendimenduaren ebaluazioan oinarrituta, beste gai batzuk ere kontuan hartuta, eta akziodunen interesei kalterik egin gabe ingurumenerako, gizarterako edo enpresen gobernu onerako onurak dakartzaten erabakien alde agertuko da.

Bestalde, boto-eskubidea gauzatzearen bidez, Sozietateen gobernantzari buruzko informazioaren kalitatearen hobekuntzan eragin nahi da, ahal den neurrian. Caja Laboral Gestiónen ustez, finantza-informazio zuzen, oso eta gardena funtsezkoa da boto-eskubideak baliatzeko, eta, beraz, informazioaren kalitatea nahikoa ez bada, abstentzioa edo ezezko botoa eman daiteke.

Gaur egun, Caja Laboral Gestiónek ez ditu kontratatuta kudeaketa-taldeari inplikazio-jardueren eta erabaki-prozesuen garapenean laguntza ematen dioten botoa emateko aholkularitza- eta inplikazio-zerbitzuen hornitzaileak.

Aurrekoa gorabehera, beharrezkotzat jotzen bada boto-aholkularien edo proxy advisorren parte-hartzea, Caja Laboral Gestiónek, araudia betez, horiek jokabide-kode baten mende eta gardentasun-baldintzen mende egotea eskatuko luke, eta haien zerbitzuak aurreko ekitaldietan izandako errendimendua kontuan hartuta hautatuko lituzke, azken 3 urteetako akziodunen batzar nagusietarako boto-gomendioak berrikusita.

3. INTERES-GATAZKEN KUDEAKETA

Sozietate Kudeatzaileak interes-gatazkak kudeatzeko politika bat du, eta Caja Laboral Gestióneko langile eta zuzendari guztiek nahitaez bete behar dute. Politika horretan, entitateak izan ditzakeen interes-gatazkak identifikatzen dira.

Ido horretan, inplikazio-jarduerek eta boto-eskubidea erabiltzeak interes-gatazka jakin batzuk eragin ahal izango dituzte, bereziki Sozietate Kudeatzaileak edo taldeko beste entitate batek inbertitzen den sozietatearekin merkataritza-harreman garrantzitsuak dituzten egoerak.

Sozietate Kudeatzaileak eremu horretan sor daitezkeen gatazkak aztertu eta kudeatuko ditu, aipatutako interes-gatazkak kudeatzeko politikan zehaztutako prozedurarekin bat etorriz.

4. POLITIKAREN APLIKAZIOA URTERO ARGITARATZEA

Sozietate Kudeatzaileak urtero argitaratuko du bere webgunean aurreko ekitaldian Politika hau nola aplikatu duen azaltzen duen informazioa. Bereiziki, eta araudia betez, boto-eskubideen erabilerari buruzko informazioa emango da, eta parte hartu duen bozketa garrantzitsuenen azalpena emango da, bai eta, hala badagokio, boto-aholkularien zerbitzuak erabili dituen ere. Zerrenda horretatik kanpo geratuko dira, bozketaren xedea dela-eta, dagokion konpainian duten partaidetza-ehunekoa dela-eta garrantzirik gabekotzat jotzen diren bozketak.

